



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko maiatzaren 8a

46 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Podologoien Elkargo Ofiziala sortzekoa. Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak onetsitako irizpena (2. or.).

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala sortzekoa. Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak onetsitako irizpena (4. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, toki esparruko herri kontsultak arautzen dituen. Aurkeztutako zuzenketak (6. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren Plan Zuzentzailea bete dezan. Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak onetsia (14. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan oinarritzko osasun laguntza berrikusi eta gaurkotzera. Osasun Batzordeak bazter utzia (15. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Podologoien Elkargo Ofiziala sortzekoa

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKO ETA BARNE BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak Nafarroako Podologoien Elkargo Ofiziala sortzeko Foru Lege proiektuari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da, Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez. Proiektu hori, 2002ko otsailaren 19ko 12. Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz, Osoko Bilkuran, zuzenketa hau defendatzen ahalko da:

– 1 zenbakiko “in voce” zuzenketa. Zuzenketa hau Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurkeztu zuen.

1 zenbakiko “in voce” zuzenketa:

Artikulu berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona hemen testua:

“Elkargoaren izen ofiziala Nafarroako bi hizkuntzetan jasoko da”.

Zioak: Elkargoaren izenak Nafarroako hizkuntza errealtatea islatzea.

Iruñean, 2002ko apirilaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Irizpena

Nafarroako Podologoien Elkargo Ofiziala sortzeko Foru Lege proiektua

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe-tzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Foru Legeko 44. artikuluko 26. idatz-zatiak adierazten duenez, Nafarroak eskumen osoa du lanbide elkargoen eta lanbide tituludunetako jardunaren arloetan, legeria orokorrekina bat.

Artikulu horretan xedaturikoaren arabera, eta Nafarroako Foru Komunitateak bere gain hartu dituen eskumenak ikusirik, Nafarroako lanbide elkargoei buruzko apirilaren 6ko 3/1998 Foru Legea eman zen. Foru lege horri erregelamenduzko garapena abenduaren 18ko 375/2000 Foru Dekretuaren bidez eman zitzaion, foru dekretu horrek Nafarroako lanbide elkargoei buruzko Foru Legea garatzen duen erregelamendua onetsi baitzuen. Hori horrela, eskaera bat aurkeztu da Nafarroako Podologoien Elkargoa sortzeko. Eskaera hori Foru Komunitatean aritzen diren eta titulu ofiziala duten profesionalik gehienek izenpetu dute. Izan ere, lanbide horretantxe jarduteko aurkeztu dute eskaera hori eta foru lege hau izapidaketa horren ondoriozkoa da.

Podologiako Diplomatura ekainaren 24ko 649/1988 Errege Dekretuaren bidez sortu zen. Aipatu errege dekretuak podologiako ikasketa planen jarraibide orokorrak finkatu zituen eta horietara egokitu beharra dute Unibertsitate Eskolek.

Aurretik, martxoaren 29ko 727/1962 Dekretuak podologiako espezializazioa ezarri zuen osasun laguntzaile teknikoentzat. Dekretuan podologoaren lanbide-esparruaren mugak finkatu ziren, baita praktikanteek eta osasun laguntzaile teknikoek zer baldintza bete behar dituzten podologo diploma hori lortzeko, betiere dekretua promulgatu zen egunean kirurgilari-pedikuro lanetan ari zirela ziurtatuta.

Azkenik, 1992ko azaroaren 25eko Aginduak baliokidetzat hartu zituen osasun laguntzaile teknikoen podologia espezialitatea eta unibertsitateko Podologiako Diplomatura.

Lehenago aipatu den arau eta lanbide autonomia kontuan hartuz, komenigarritzat eta beharrezkotzat jo da lanbide elkargo bat sortzea Nafarroako Foru Komunitateko podologoak bildu, lanbide hori eta bazkideen lanbide-interesak ordezkatu eta defendatzen dituen, gizartearen orotariko

intereseekin bat, eta legeen arabera lanbide horretan jarduteko era antolatzen duena.

Horrenbestez, Nafarroako Podologoaren Elkargo Ofiziala sortzeko interes publikoko arrazoiak daudenez, foru lege honen bidez elkargo hori sortzen da.

1. artikulua. Izaera eta araubide juridikoa.

Nafarroako Foru Komunitateko Podologoaren Elkargo Ofiziala sortzen da, zuzenbide publikoko korporazio gisa. Nortasun juridiko propioa du, eta ahalmen osoa bere helburuak eta eginkizunak betetzeko.

Lanbide elkargoak nortasun juridikoa izanen du Foru Lege honek indarra hartzen duenetik eta jarduteko gaitasuna gobernu-organoak erazten direnetik.

2. artikulua. Jarduteko eremua.

Nafarroako Podologoaren Elkargo Ofizialaren jarduteko eremua Nafarroako Foru Komunitatea da.

3. artikulua. Elkargoko kide egiteko eskubidea.

Ondokoak egin daitezke Nafarroako Podologoaren Elkargo Ofizialeko kide:

1. Ekainaren 24ko 649/1988 Dekretuari eta hura garatzeko arauei jarraikiz, Podologiako Diplomaturako tituluaren jabe direnak, eta dekretu horretan egiten den lanbide eskubideen errekonozimenduaren ondorioz, podologo diploma dutenak, martxoaren 29ko 727/1962 Dekretuan ezarritakoaren arabera emana.

4. artikulua. Lanbidea.

Nafarroako Foru Komunitatean podologo lanean aritzeko ezinbesteko betebeharra da Nafarroako Podologoaren Elkargo Ofizialeko kidea izatea, salbu eta beste lurralde bateko Podologoaren Elkargoko kidea dela frogatzen bada.

5. artikulua. Arautegia.

Nafarroako Podologoaren Elkargo Ofiziala lanbide elkargoei buruzko legeen, haien estatutuen eta, hala bada, barne araubideko erregelamenduaren arabera antolatuko da.

Xedapen iragankor bakarra

1. Nafarroako Podologoaren Elkargo Ofiziala sortzeko batzorde sustatzaileak, legeak indarra hartu eta sei hilabeteko epean, Podologoaren Elkargoko behin-behineko estatutuak onetsi beharko ditu, honakoak arautzen dituztenak:

a) Elkargokide bihurtzeko betebeharrak, elkargoa osatzeko biltzarrean parte hartzea ahalbidetuko dutenak.

b) Elkargoa osatzeko biltzarrerako deialdiko prozedura eta haren funtzionamendua. Deialdi hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

2. Podologoaren Elkargo Ofiziala osatzeko biltzarrak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Elkargoaren behin betiko estatutuak onestea.

b) Elkargoko gobernu-organoetako kideak hautatzea.

3. Elkargoaren behin betiko estatutuak, onetsi ondoren, Elkargoa osatzeko biltzarraren aktaren ziurtagiriarekin batera, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentura igorriko dira. Kontseilariak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua emanen du, Departamentuko organo eskudunak haiek legeekin bat datozela adierazi ondoren.

Azken xedapena

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proiektua, Nafarroako Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala sortzekoa

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKO ETA BARNE BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak Nafarroako Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala sortzeko Foru Lege proiektuari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da, Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez. Proiektu hori, 2002ko martxoaren 18ko 29. Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz, Osoko Bilkuran, zuzenketa hau defendatzen ahalko da:

– 3 zenbakiko zuzenketa. Zuzenketa hau Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurkeztu zuen.

Zuzenketa hori 2002ko apirilaren 24ko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko apirilaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Irizpena **Foru Lege proiektua,** **Nafarroako Fisioterapeuten** **Elkargo Ofiziala sortzekoa**

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe-tzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Foru Legeko 44. artikuluko 26. idatz-zatiak adierazten duenez, Nafarroak eskumen osoa du lanbide elkargoen eta lanbide tituludunetako jardunaren arloetan, legeria orokorrekarekin bat.

Artikulu horretan xedaturikoaren arabera, eta Nafarroako Foru Komunitateak bere gain hartu dituen eskumenak ikusirik, Nafarroako lanbide elkargoei buruzko apirilaren 6ko 3/1998 Foru Legea eman zen. Foru lege horri erregelamenduzko garapena abenduaren 18ko 375/2000 Foru Dekretuaren bidez eman zitzaion, foru dekretu horrek Nafarroako lanbide elkargoei buruzko Foru Legea garatzen duen erregelamendua onetsi baitzuen. Hori horrela, eskaera bat aurkeztu da Nafarroako Fisioterapeuten Elkargoa sortzeko. Eskiera hori Foru Komunitatean aritzen diren eta titulu ofiziala duten profesionalik gehienek izenpetu dute. Izan ere, lanbide horretantxe jarduteko aur-

keztu dute eskaera hori eta foru lege hau izapidaketa horren ondoriozkoa da.

Abenduaren 12ko 2695/1980 Errege Dekretuaren bidez, fisioterapiaren irakaskuntza ofizial bihurtu zen, unibertsitatean sartuz. Arau hark diploma sortu zuen ikasketa horietarako.

Lehenago, 1957ko uztailaren 26ko Dekretuaren bidez, fisioterapia espezialitatea sortu zen osasun langile teknikoendako.

Halaber, urriaren 26ko 1414/1990 Errege Dekretuaren bidez, fisioterapiako diploma izeneko unibertsitate-titulu ofiziala sortu eta titulu hori lortzeko ikasketa planetako jarraibide orokorrak eman ziren.

Lehenago aipatu den arau eta lanbide autonomia kontuan hartuz, komenigarritzat eta beharrezkotzat jo da lanbide elkargo bat sortzea Nafarroako Foru Komunitateko fisioterapeutak bildu, lanbide hori eta bazkideen lanbide-interesak ordezkatu eta defendatzen dituen, gizartearen orotariko interesekin bat, eta legeen arabera lanbide horretan jarduteko era antolatzen duena.

Horrenbestez, Nafarroako Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala sortzeko interes publikoko arrazoiak daudenez, foru lege honen bidez elkargo hori sortzen da.

1. artikulua. Izaera eta araubide juridikoa.

Nafarroako Foru Komunitateko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala sortzen da. Zuzenbide Publikoko korporazio bat izanen da, berezko nortasun juridikoa eta bere helburuak bete eta bere eginkizunetan aritzeko erabateko gaitasuna izanen duena.

Lanbide elkargoak foru lege honek indarra hartzen duenez geroztik izanen du nortasun juridikoa. Gobernu-organoak osatzen direnez geroztik izanen du aritzeko gaitasuna.

2. artikulua. Jarduteko eremua.

Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala Nafarroako Foru Komunitatean arituko da.

3. artikulua. Elkargoko kide egiteko eskubi-dea.

Ondokoak egin daitezke Nafarroako Fisioterapeuten Elkargo Ofizialeko kide:

1. Fisioterapiako diploma izeneko unibertsitate-titulua daukatenak, abenduaren 12ko

2965/1980 Errege Dekretuarekin eta hori garatzen duten arauekin bat.

2. 1957ko uztailaren 26ko Dekretuaren arabera, fisioterapia espezialitatea aitorturik daukaten profesionalak eta dekretu hori eman baino lehen fisioterapian aritzeko gaituriko profesionalak.

4. artikulua. Lanbidea.

Nafarroako Foru Komunitatean fisioterapian aritzeko ezinbesteko betebeharra da Nafarroako Fisioterapeuten Elkargo Ofizialeko kidea izatea, salbu eta beste lurralde bateko Fisioterapeuten Elkargoko kidea dela frogatzen bada.

5. artikulua. Arautegia.

Nafarroako Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala lanbide elkargoei buruzko legeen, haien estatutuen eta, hala bada, barne araubideko erregelamenduaren arabera antolatuko da.

Xedapen iragankor bakarra

1. Espainiako Fisioterapeuten Elkarrekin Nafarroan duen ordezkariak, lege honek indarra hartu eta sei hilabeteko epean, Nafarroako Foru Komunitateko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialaren behin-behineko estatutuak onetsi beharko ditu, ondokoak arautzeko:

a) Elkargokide bihurtzeko betebeharrak, elkargo osatzeko biltzarrean parte hartzea ahalbidetuko dutenak.

b) Elkargo osatzeko biltzarrerako deialdiko prozedura eta haren funtzionamendua. Deialdi hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

2. Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala osatzeko biltzarrak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Elkargoaren behin betiko estatutuak onestea.

b) Elkargoko gobernu-organotako kideak hautatzea.

3. Elkargoaren behin betiko estatutuak, onetsi ondoren, Elkargo osatzeko biltzarraren aktaren ziurtagiriarekin batera, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentura igorriko dira. Kontseilariak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua emanen du, Departamentuko organo eskudunak haiek legeekin bat datozela adierazi ondoren.

Azken xedapena

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, toki esparruko herri kontsultak arautzen dituen

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, toki esparruko herri kontsultak arautzen dituen Foru Lege proposamenari egin zaizkion zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proposamen hori 2001eko urriaren 30eko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko apirilaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

gatik ezin duten iritzia eman ordenamendu juridikoaren aurkakoa izan daitekeen gai bati buruz, are gehiago kontuan hartzen badugu iritzi horrek ordenamendu hori bera aldatzeko ekimenak sustatzeko balio dezakeela.

Ez da onargarria herri kontsulta loteslea ez izatea, eta horrenbestez, bermatu egin beharko litzateke udal organoek kontsultaren emaitzari men eginen diotela biztanleen iritziari, baldin eta gai bati buruzko errefrendua eskatzen bazaie.

2. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

BATASUNA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2.1. artikulua aldatzeko zuzenketa

“udalaren eskumenekoak izan eta” kentzea proposatzen dugu.

Zioak: Gure ustez, udaletako eta gainontzeko toki entitateetako herritarrei aitortu egin behar zaie eskubidea dutela haien interesentzat garrantzi berezikoak diren gaiei buruz, ez baita mugatu behar eskubidea udalaren eskumenekoak diren gaietara; izan ere, asmoa herritarren iritzia jasotzea da.

2. ZUZENKETA

BATASUNA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2.2. artikulua kentzeko zuzenketa

Zioak: Lehenengo eta behiz, asmoa herritarren iritzia jasotzea baldin bada, ez dugu ulertzen zer-

6. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

3. ZUZENKETA

BATASUNA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa

“ehuneko hamarren” ordez “ehuneko bosten” jartzea proposatzen dugu.

Zioak: Demokraziaren ikuspuntutik, herri kontsulta bat sustatzeko erroldatutako pertsonen ehuneko hamarren sinadura eskatzea gehiegi da. Gure ustez, egokiagoa da ordezkari lortzeko hautagai-zerrendei eskatzen zaien ehuneko ezartzea, eta ez lege proposamenean eskatzen dena.

4. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6.1. artikulua aldatzeko zuzenketa

“kasuko udalean erroldatutako herritarren ehuneko hamarren sinadura” jartzen duen tokian

“kasuko udal-eroldan izena emandako herritarren ehuneko hogeiren sinadura” jartzeko proposatzen dugu.

Zioak: Herritarren ekimena baliatzerakoan udal-eroldan izena emandako herritarren multzoa hartu behar da kontuan, eta hortaz, ordezkaturako herritarren kopurua handitzean, eskaera ehuneko hogeira handitu behar da.

5. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI

MILAGROS RUBIO SALVATIERRA

ANDREAK AURKEZTUA

6. artikulua aldatzeko zuzenketa

1. Prozedura udalbatzak berak has dezake edo herritarrek hala eskatuta hasiko da. Herritarrek eskatuta hasteko, kasuko udalean erroldaturako herritarren ehuneko hamarren sinadura behar da gutxienez.

2. Udal-eroldan erregistratuta dauden herritar adindun guztiek sina dezakete herritarren eskaera.

Zioak: Iritzia eskatzeko herri kontsultak lotesleak ez direnez, udal-eroldan izena eman duten etorkinek ere izan behar dute udal gaietan iritzia emateko eskubidea. Etorkinen eskubide politiko eza ongi egonen litzateke konpentsatuko balitz, gutxienez ere, lotesleak ez diren gisa horretako kontsultetan parte hartzeko aukera emanez.

7. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

6. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

7.2. artikulua aldatzeko zuzenketa

“idazkari judizialak” kentzea proposatzen dugu.

Zioak: Gehiegikeria da idazkari judizialei foru lege bidez esleitzea eginkizunak.

7. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

7. artikuluko 4. idatz-zatia kentzeko zuzenketa

Zioak: ez da bidezkoa bultzatzaileei fede-emai-le bereziak izendatzeko ahalmena ematea, hain justu ere zigor-aurrekaririk ez izatea eta udal idazkariaren aurrean zin egitea eskatzen bazaie, eta horiei Zigor Kodea aplikatzea funtzionario publikoen delituak direnetan. Aplikazio hori foru lege bidez egiten da, baina zigor arloa Estatuaren eskumena izateaz gain lege organiko bidez egikaritu behar da.

8. ZUZENKETA

BATASUNA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

7. artikuluko 7. idatz-zatia kentzeko zuzenketa

Zioak: Beste zuzenketa batzuekin bat.

9. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

7. artikuluko 7. idatz-zatia kentzeko zuzenketa

Zioak: Idatz-zati horretan azaltzen diren arrazoiak erredundanteak eta begi bistakoak dira, lege beste artikuluko batzuetan ere azaltzen direlako, eta horrenbestez, nahitaez bete beharrekoak dira.

Bestalde, kontsulta egiteko baimena ukatzeko aukera arrazoi horietara mugatzea udal autonomiaren aurka jotzea da.

10. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

7. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa

“bi herritar-elkarte” jartzen duen tokian “bi herritar-elkarte legez eratuak” jarri behar du.

Zioak: Prozedura segurtasunez eta gardentasunez janzteko, prozedura has dezaketan elkartek legez eratuta egon behar dute, eta kasu bada, erregistroan izena emanda ere.

**8. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

11. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

8. artikulua aldatzeko zuzenketa

8. artikulua. Osoko bilkuraren erabakia.

Osoko bilkurak gehiengo osoz erabaki ahalko du herri kontsulta egitea, udalean ordezkariak duen talderen batek proposatuta nahiz herritar talde batek eskatua, lege honetako zazpigarren artikuluan ezarritako baldintzekin bat etorritik.

Erabakiak kontsulta zehazki nolakoa izan den jaso beharko du: galdera bat edo gehiago, argi eta garbi idatziak, boto-emaileek baiezkotza edo ezezkoa eman ahal diezaien.

Zioak: Testua hobetzea, ekimena abiarazteko aukera edozein udal talderi nahiz herritarrei emanez; betiere, kontsulta egiteko ala ez egiteko erabakia osoko bilkuraren esku utzi behar da.

**9. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

12. ZUZENKETA**BATASUNA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

9. artikulua aldatzeko zuzenketa

1. Herri-kontsulta egitea erabakitakoan, alkateak, bost eguneko epean, espedientearen kopiarekin batera, osoko bilkuraren aldeko erabakiaren hitzez hitzeko ziurtagiria igorriko dio Nafarroako Gobernuako lehendakariari, eta hark legeria indardunean ezarritakoaren arabera bideratuko du eskaria.

Zioak: Lege proposameneko testuan aldiro errepikatzen da ordenamendu juridiko indardunak ezartzen duelako leloa.

13. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

9. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa

“Toki araubidearen oinarri buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 71. artikulua arabera” jartzen duen tokian “Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 96. artikulua arabera” jartzea proposatzen dugu.

Zioak: Ez dugu ez egoki ez beharrezko ikusten aipatu foru legeko artikulua hori indargabetzea, badituelako udal mailako herri kontsultak egiteko oinarri nagusiak, oro har proposamenak kopiatzen dituenak. Foru legea aipatu behar da, aplikatzerakoan lehentasuna baitu Oinarrien legearen aldean.

**10. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

14. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

10. artikulua aldatzeko zuzenketa

“alkateari dagokio herri-kontsulta deitzea; hori erabaki baten bidez egingen du” jartzen duen tokian haxe jarriko du: “Nafarroako Gobernuari dagokio herri-kontsulta deitzea; hori foru dekretu baten bidez egingen du”.

Zioak: autonomia-legeria konparatu gehienak gobernuetako kontseilariei edo autonomia erkidegoetako lehendakariari esleitzen die ahalmen hori, batik bat alkateek ez dutelako hauteskunde batzordea aktibatzeke ahalmenik.

11. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

15. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

11. artikulua aldatzeko zuzenketa

11. artikuluko lehen lerrokada aldatzea proposatzen dugu. Hona testu berria: "Nafarroako Foru Komunitateko Hauteskunde Batzordeak, Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak eta hauteskunde mahaiek osatzen dute hauteskunde administrazioa..."

Zioak: Eskualdeko hauteskunde batzordeak hauteskundeak egin eta ehun eguneko epean desegiten dira, eta haiek aktibatze beharrezkoa da organo iraunkor bat egotea.

12. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

16. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

12. artikuluko 1. idatz-zatia kentzeko zuzenketa

Zioak: Kontraesana da hauteskundeei buruzko legeria eta Erreferendumei buruzko lege organikoa aipatzea eta, aldi berean, eskumenez haratago joanez, Eskualdeko Hauteskunde Batzordearen osaketan foru lege bidez aldatetako egin nahi izatea.

13. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

17. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

13. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa

"Eskualdeko Hauteskunde Batzordearen esku" jartzen duen tokian hauxe jarriko du: "Nafarroako Foru Komunitateko Hauteskunde Batzordearen eta Eskualdeko Hauteskunde Batzordearen esku".

Zioak: prozesua kontrolatzen duten organo guztien esku jarri behar dira baliabideak.

14. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

18. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
ANDREAK AURKEZTUA

14. artikulua aldatzeko zuzenketa

Hona testu berria:

14. artikulua. Titularrak.

1. Kotsultan boto bidez iritzia adierazteko eskubidearen titularrak dira udaleko biztanleak izan eta, deialdia egitean, adindunak izan eta udal-errolan izena emanda daudenak.

2. Deialdiaren dekretua Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta seigarren egunean, udalak iragarkien oholean jarriko ditu hauteskundezkerrendak.

3. Lege proposamenean dagoen bezala geratuko da.

Zioak: Iritzia eskatzeko herri kotsultak lotesleak ez direnez, udal-errolan izena eman duten etorkinek ere izan behar dute udal gaitan iritzia emateko eskubidea. Etorkinen eskubide politiko eza ongi egonen litzateke konpentsatuko balitz, gutxienez ere, lotesleak ez diren gisa horretako kotsultetan parte hartzeko aukera emanez.

19. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

14. artikulua aldatzeko zuzenketa

Hona testu berria:

14. artikulua. Titularrak.

1. Kotsultan boto bidez iritzia adierazteko eskubidearen titularrak dira udaleko biztanleak izan eta, deialdia egitean, hauteskundeei buruzko legeria indardunaren arabera hautesle izateko baldintzak betetzen dituztenak.

2. Deialdiaren dekretua Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta seigarren egunean, udalak iragarkien oholean jarriko du deialdia egiten den egunean indarrean dagoen udal-errola, herritarrek norberari buruzko datuak ikusi eta, zor-

tzi eguneko epean, egoki iritzitako erreklamazioak egin ahal izan ditzaten.

3. Udal-eroldaren araberako zerrenda iragarrien oholean jarrita egonen da kontsultaren egunera arte eta hauteskunde mahaietara igorriko dira dokumentazio ofizialarekin batera.

Zioak: Herri kontsulta biztanleei mugatzea da asmoa, argi utzita horiek baino ez dutela botoa emateko eskubidea. Bestalde, Hauteskunde-Zentsuaren Bulegoei ezin zaizkie esleitu gure esku ez dauden betebeharrak eta eginkizunak.

15. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

20. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI

MILAGROS RUBIO SALVATIERRA

ANDREAK AURKEZTUA

15. artikulua aldatzeko zuzenketa

Hona testu berria:

Mahaiak duen hautesleen zerrendan agertzea botoa emateko eskubidearen frogagarri izan da. Edonola ere, boto-emaleak nortasun agiria erakutsi beharko du, edo argazkidun pasaporte edo gidabaimena.

Zioak: Udal-eroldan bai baina zentsuan azaltzen ez direnei botoa emateko eskubidea onartzen bazaie, ez da beharrezkoa Hauteskunde-Zentsuaren Bulegoaren ordezkartza probintzialak emandako ziurtagiriak erabiltzea.

21. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

15. artikulua aldatzeko zuzenketa

Hona testu berria:

15. artikulua. Botoa emateko eskubidearen frogak.

Udal-eroldan agertzea botoa emateko eskubidearen frogagarri izan da, eta baita udal idazkariak emandako ziurtagiria ere. Edonola ere, boto-emaleak nortasun agiria erakutsi beharko du, edo argazkidun pasaporte edo gidabaimena.

Zioak: Bizilagunen eskubidea denez, aintzat hartu behar dena ez da hauteskunde-zentsua, baizik eta bizilagunen errolda.

16. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

22. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

16. artikuluko 3. idatz-zatia kentzeko zuzenketa

Zioak: Proposamenak ezartzen duen erreklamazio- eta errekurso-sistema Administrazio eta Prozedura Legean eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legean ezarritako sistemaren kontrakoa da, eta lehenik eta behin horiek aplikatzen direnez, manuak ez du eraginik izan.

18. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

23. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

18. artikulua aldatzeko zuzenketa

Artikuluaren amaieran haxe behar du: "boz-keta egunaren bezperako 00:00etan amaitu beharko du kanpainak".

Zioak: Hausnarketa egiteko eguna errespetatzea da asmoa.

21. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

24. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

21. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa

Hona testu berria:

21. artikulua. Boto-txartelak, gutunazalak eta aktak.

1. Nafarroako Gobernuak foru dekretu bidez onetsiko ditu boto-txartelak eta bozketarako gutunazalak, bai eta Nafarroako Foru Komunitatean deitzen diren udal mailako herri-kontsulta orotan balioa duten eratzeko eta zenbaketa-aktak ere.

Zioak: Hautes-agiriak ez ditu hauteskunde batzordeak onesten. Parlamentua eta kontzejuak eratzeko hauteskundeetan Nafarroako Gobernuak onesten ditu erabiliko diren ereduak, eta hauteskunde batzordeei boto-txartelak araudiaren arabera diren eratzeko egiaztatzea dagokie.

23. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

25. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

23. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa

“hauteskunde-zerrendan dagoela..” dioen tokian hauxe esan behar du: “udal-eroldan dagoela eta 14. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituela...”.

Zioak: Bizilagunen eroldaren arabera egin behar da prozesu osoa, eta ez hauteskunde-zentsuaren arabera, horrela eginez gero ez bailuke izanen inongo eragingarritasunik.

25. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

26. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

25. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa

Hona testu berria:

2. 500 biztanle edo gutxiago dituen herri batean egiten bada kontsulta, deialdia egiten duen foru dekretuak, alkateak proposatuta, kontsulta hori beranduago hasia edo garaizago amaitzea ezar dezake; hasiera eta amaieraren artean lau orduko tarte beharko da gutxienez ere.

Zioak: 10. artikuluari eginiko zuzenketarekin bat etorritik, deialdia Nafarroako Gobernuak eginen du, foru dekretu bidez.

26. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

27. ZUZENKETA**BATASUNA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

26. artikuluko 4. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa

Hona testu berria:

4. Herri-kontsultaren emaitza Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo hilabetean, udaleko organo eskudunek behar diren erabakiak hartuko dituzte, ordura arteko erabaki nahiz egin-tza administratiboak herri-kontsultaren emaitzetera egokituko. Kontsultaren emaitza loteslea izanen da.

Zioak:

Herri-kontsulten bidezko parte-hartzea baliatzeak ez du ezertarako balio baldin eta haren emaitza ez bada administrazioarentzako loteslea. Desegokia eta sasi-demokratikoa ere izanen litza-teke.

28. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

26. artikuluko 4. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa

“osoko bilkuran har dezake parte” esaten duen tokian hauxe gehituko da: “bilkura bukatutakoan”.

Zioak: Toki administrazioari buruzko ordenamendu juridikoak ez die uzten parte hartzen kasuan kasuko toki hauteskundeetan hautatuak izan ez diren herritarrei herritarrek berek hautatutako ordezkariak osatzen dituzten toki entitateen organoen bilkuretan.

**XEDAPENEI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

29. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Hirugarren xedapen gehigarria gehitzeko zuzenketa

Hirugarrena. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 96. artikuluko 3. idatz-zatiko e) letra honela geldituko da:

3. (...)

e) Kontsulta sufragio berdin, zuzen eta sekretu bidez eginen da, eta erantzunak baiezkoak, ezezkoak ala zuriak izanen dira. Foru Komunitateko administrazioari dagokio boto-txartelak, bozketarako gutunazalak eta eratze- eta zenbaketa-aktak onestea.

Zioak: Parlamentua eta kontzejuak eratzeko hauteskundeetan gertatzen den bezala, Foru Komunitateko administrazioak onesten ditu erabiliko diren ereduak. Boto-txartelak zigilatze teknika zaharkiturik dago, eta gainera, ez du ezertarako balio biztanle kopuru jakin bat duten udaletan egindako herri kontsultetan. Hortaz, ematen du logikoagoa dela administrazioak onestea erabiliko diren ereduak, hauteskunde prozeduretan egiten den legez.

30. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen indargabetzailea kentzeko zuzenketa

Zioak: Ez dugu uste indargabetze hori beharrezkoa denik. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legeko 96. artikulua lege aldetik beharrezko guztiak ezartzen ditu udaletan herri kontsultak egiteari begira, eta foru lege proposamenak osagai orokor eta global horiek guztiak errespetatzen ditu, zehatz-mehatz eta era ia erregelamentista batez garatzen baititu. Ondorioz,

indargabetze horrek ez du ezertarako balio, eta Toki Administrazioari buruzko Foru Legeko 96. artikulua edukirik gabe uztea alferrikakoa da teknikaren, legearen eta politikaren aldetik.

31. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen indargabetzailea kentzeko zuzenketa

Zioak: Lege honek, neurri batean, Toki Administrazioari buruzko Foru Legeko 96. artikuluko 3. idatz-zatia garatzen du, eta horrenbestez, indargabetze hori ez zaigu muntaduna iruditzen.

32. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Azken xedapenetako hirugarrena kentzeko zuzenketa

Zioak: Ez dugu legeek indarra hartzeari buruz Kode Zibilak oro har ezarritakoa ekiditeko presako arrazoirik ikusten.

**ZIOEN AZALPENARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

33. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpeneko bigarren lerrokada aldatzeko zuzenketa

“Toki araubidearen oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 71. artikulua” jartzen duen tokian, hauxe jarri behar du: “Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legeko 96. artikulua”.

Zioak: Toki Administrazioari buruzko Foru Legeko 4. artikulua ezarritako lehentasunen ordena errespetatzea da asmoa, ez baita beharrezkotzat jotzen foru lege horretako 96. artikulua indargabetzea.

34. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko hirugarren lerrokada kentze-ko zuzenketa

Zioak: Ematen du aprioristikoa dela Nafarroako Administrazioari buruzko Foru Legeari egoztea herritarren parte-hartzea herri kontsulten bidez sustatzeko ezintasuna, beste horrenbeste gertatzen baita Espainiako toki administrazioan —harta ez da aplikatzekoa gure foru legea—. Eta aprioristikoa eta kontrastatugabea da pentsatzea proposamena tresna baliagarriagoa izanen dela.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren Plan Zuzentzailea bete dezan

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKO ETA BARNE BATZORDEAK ONETSIA

Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak, 2002ko apirilaren 23an egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren Plan Zuzentzailea bete dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko apirilaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren Plan Zuzentzailea bete dezan

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren plan zuzendari hori bete dezan eta suhiltzaileen parke zentral bat ezar dezan Foru Komunitatean, suhiltzaileen lan baldintzak hobe daitezen, plantilla organikoaren arloko aurreikuspenak bete daitezen eta hain arrisku eta erantzukizun handiko zereginetan aritzeko behar den prestakuntza eman dadin.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du planaren betetze maila azter dezan eta Su-itzaltze Zerbitzuaren plan zuzendari berri bat egin dezan, orain arte bete ez diren alderdiak eta zerbitzuaren beraren ordezkarien eskaerak ere harturik bere baitan."

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan oinarritzko osasun laguntza berrikusi eta gaurkotzera

OSASUN BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Biltzarreko Osasun Batzordeak, 2002ko apirilaren 30ean egindako bilkuran, ondoko mozioa baztertu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan oinarritzko osasun laguntza berrikusi eta gaurkotzera". Mozio hori 2002ko

martxoaren 27ko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

**HARPIDETZA
ORRIA**

Izen-deiturak
Helbidea
Telefonoa *Hiria*
P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
Urte bat 39,07 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 0,96 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,14 »	